

ALTZA! PORRU



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2001eko martxoa-apirila / 1 zenbakia

Mardu xarra hil da Euskal Herriko Trikitixa Eguna
Kepa Junkera, trikitixa Getxon Apirilaren 22an

Mardu Xarra hil da



Trikiti herria

Juan Jose Izagirre Antia "Mardu Xarra" trikitilaria joan den Abenduaren 15ean hil zen, Zestoa herriko Arroa auzoan.

Mardu Xarra 1926ean jaio zen Arroa-beheko Mardu baserrian. Soinu handiarekin ekin zion musikari baina soinu txikiaren doinuak liluraturik edo, honekin hasi zen gero. Zenbait plaza, erromeria eta txapelketatan parte hartu zuen, tartean Juan Orbegozoren mailako panderojoleekin. Primi Erostarberen panderojolea ere izan zen.

Ander Hormazuri panderojolearekin batera eginiko grabazio bat utzi zigun Mardu Xarrak, 1994 urteko Maiatzean egindakoa hain zuzen ere "Trikiti herrikoa" izan zuen izenburu lan harek.

Euskal Herriko Trikitixa Eguna

Getxon

Apirilaren 22an

● Kalejirak goizean

Egitarauari dagokionean, goizeko hamaikatan trikitixa eskola bakoitzari alde zurretik jakinaraziko zaien lekuan ongi etorria egingo zaio, autobus bakoitzari numero bat emango zaio eta aparkatu behar duen lekuraino lagunduko dio antolatzaile batek. Ongi etorriaren ondoren kalejira izango da Getxoko kale eta auzoetan zehar. Getxo oso herri zabala da eta hiru auzotan banaturik dago. Bazkaria Areetan jarria izango den karpa erraldoian izango da eguerdiko hiruretan.

● Erromeria eta omenaldia

Laurak eta erdi aldera Katalunyatik etorritako akordeoi diatoniko joleak izango dira bazkaria egingo den karpán. Katalandarren akordeoi diatonikoa gure trikitixaren antzekoa da baina ez berdina. Botoi gutxiago ditu eskuinean eta baxuak ere isterakoan eta irekitzerakoan aldatu egiten dira. Sorpresaren bat ere izango da.

Ondoren omenaldia eskainiko zaio Kepa Arrizabalaga pandero joleari, Antton Mendizabal eskulturagileak eginiko oroigarria jasoko duelarik.

Kepa Arrizabalaga, Rufino Arrola Andrakaseko errementariaren bikote izan zen. Bi hauek Luis Bilbaorekin batera 1979an grabatu zuten Bizkaiko Trikitilariak lanaren berrargitaralpen bat ere prestatu dugu egun honetarako. Trikitixa eskola bakoitzak konpakto bat izango du opari.

EGUNA

APIRILAK 22

Getxoko herriak hartu du, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin batera eta Itxartu Dantza Taldearen laguntzaz, aurtengo Euskal Herriko Trikitixa Eguna antolatze-

aren erantzukizuna. Euskal Herri osoko trikitilari nahiz trikitizale guztien topaleku den egun honetako berri emango dizuegu Alzaporru!-ren ale honetan.

Amaitzeko Urgabe taldea izango dugu festa alaituz gaualdera arte.

Bazkarirako txartelak Apirilaren 6a baino lehen.

Aldez aurretik hartu behar dira txartelak eta Apirilaren 6a izango da azken eguna. 1.500 pezeta izango da bazkariaren prezioa. Euskadiko Kutxaren(Caja Laboral) edozein bulegotan 3035 0108 05 1080029181 zenbakian sartu behar duzue txartelen dirua. Esan banketxekoari adieraz dezala diru sarrerarekin batera zein pertsona edo eskolak egiten duen sarrera. Edozein zalantza edo argibide eskatzeko 656411522 telefonoan Eneko izango duzue.

-Menua ere erabakirik dago:

- .Marmitakoa.
- .Solomoa piper gorriekin.
- .San Markos tarta.
- .Jelatua eta kafea.

On egin.



Rufino Arrola eta Kepa Arrizabalaga

Kepa Junkera, trikitixa



Hala du izenburutzat Kepa Junkeraren lanak eta afanak kontatzen dizkigun liburuak. BBK-rekin elkarlanean atera duen liburu honetan bost atal desberdindu daitezke:

- Junkeraren ibilbidearen berri ematen digun atala (Imanol Agirrerren eskutik).
- Junkeraren inguruko iritzi zenbait (Flaco Jimenez, Laja, Xabier Amuriza, Joseba Tapia, Juan Carlos Perez, Jon Sarasua eta beste).
- Argazki kollage zabal bat.
- Diskografia osoaren berri zeatza.
- Junkerak sorturiko kantuen hitzak.
- Piezen partiturak.

ANDONI EGAÑA Bertsolaria

"Zein den nire hutsunea? Talde lanerako ez dudala asko balio, edo ez dela nire ezaugarririk fuerteena. Bertsolari bizimodua eramanda, oso zaila da gero talde lanean aritzea batez ere desplazamendua eskatzen badu. Bizitzeko beste era bat da".

Hala ere, Bertsosale Elkarte talde lan horretan eredugarria izan dela aipatu behar, mutu askotako jendea elkar batzeko balio izan baitu. "Euskal Herrian ia miraria den gauza bat lortu dugu. Gure neurrian jakin izan dugu orekari eusten; bustitzeari utzi gabe, toki batzuetan gehiegi ez bustitzen;

administrazioarekin konpontzen, baina zurikeriatan jardun gabe; eta ETBekin haserretu behar zenean haserretzen, eta negoziatu behar zenean, negoziatzen. Bertsolariek suerte handia daukagu, elkarrekin ibiltzen garelako beti, baten arrakasta bestearen arrakasta da neurri handi batean. Igurtziak asko batzen du jendea. Bertsolaritzarentzat suerte ba da. Musika taldeek, trikitilariak... ez dute hori horrela bizitzen.

Euskaldunon Egunkaria,
KZ gehigarria

HAUSPO ZAHARRAK



Datorren urteko Santo Tomas bezperan 60 urte egingo dituen argazkian Sakabi, Elgeta eta Auntxa dituzue. Lehendabizi Elgeta joan zen, gero Sakabi baina Auntxa oraindik bizi da. Urrestillan familiak duen tabernara joaten bazarete agian ikusiko duzue.

gurutzegrama

		Zuhaitz nota	Burutazioa	Baldarrak	Gaia
		Itauriak	Erdiespenak	Noren atzizkia	Harribitsi mota
Deitura					
Kirikinoa					
VI. hila	Har ezazu!			Portu	
Izena	Hitez adierazi			Musika nota	
		Horma			
		Bat eta bat			
Nafarroako herria			Juntagaiua		Gehiegi
Mugimendua			Ez eme		
				Sufrea	50
				Jainko egiptoarra	Her. hizk. zer
Nauka		Enda			
Toka, banaiz		Uranioa			
			Ahuntza-ren ar		



soluzioak

E	T	I	P	G	E	K	A	G	A	I	A	L	Z	A	R
T	R	D	G	O	R	I	K	E	T	A	S	A	R	A	K
I	D	E	N	A	R	E	T	A	E	S	A	R	A	K	
G	L	O	R	E	P	A	B	E	A	R	A	K			
G	T	O	R	I	B	E	I	N	A	U	K				
E	K	A	R	I	B	E	I	N	A	U	K				
I	K	Z	I	R	K	I	N	A	U	K					
I	K	Z	I	R	K	I	N	A	U	K					